

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Egutegi unibertsalerantz



Maien egutegia.

martxoa, ekaina, iraila eta abendua izan ezik, horiek 31 egun izango bailituzkete. Bost edo sei urtero (2015, 2020, 2026, 2032...) abenduari astebete gehituko litzaioke.

Esan bezala, sistema horren bidez beti asteko egun berdinean ospatuko lirakeke jai egunak. Finantzen alorrean abantaila handiak eskainiko lituzke horrek.

MARIANO RAJOY Espainiako presidentek astean zehar egokitzen diren festa egunak, ahal denean, astelehenera eramateko asmoa iragarri du. Eta Espainiakoa ez da jai egunei buruzko kezka agertu duen estatu bakarra krisi garai honetan.

Johns Hopkins Unibertsitateko astrofisikari eta ekonomialari batzuek jai egunak urtetik urtera aldatzen ez diren egutegia sortu dute. Hilabete gehienak 30 egunekoak izango lirakeke,



Intsentsua desagertzeko arriskuan

INTSENTSUA *Boswellia* espezieko arbustu txikietatik ateratzen da, eta batez ere Afrikan eta Asian aurkitu daiteke. Hainbat kulturatan oso erabilia izan arren, inoiz ez du nekazaritza-ustiapenik izan. Eta orain, desagertzeko arriskuan dago.

Journal of Applied Ecology aldizkarian ikerlari etiopiar eta holandar talde batek argi-

tara emandako artikuluan, hamabost urte barru *Boswellia* arbustuen erdia, eta 50 urte barru %90, desagertzea adierazi dute. Bi urteko behaketen ostean iritsi dira ondorio horretara. Landare mota horrek ugalketarako ratio ona baldin badu ere, suteek, belardien hazkundeak eta intsektuen erasoek oso egoera larria eragin dute.



KENNYMORRISON.PHOTO.COM



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Minutu bat eguzkitan eta 360 ordu argi infragorria emititzen

Arruntak dira aurrez argiztatuta egon eta gero gauez edo leku ilunetan argia emititzen duten gailuak, baina gertaera horrek segundo batzuk baino ez du irauten. Georgiako Unibertsitateko (AEB) ikerlari batek izugarriko aurrerakada lortu du arlo horretan.

<http://ttiki.com/33723> (Gaztelaniaz)

Zulo batzuetatik argi gehiago iragaten da estalita daudenean

Nano-munduan, askotan, gauzak ez dira gure eskalan bezala gertatzen. Gure tamainako munduan, xafla bateko zuloak estaliz gero, argiak ezin ditu zuloak zeharkatu; aldiz, nano-munduan zuloak estaltzeko erabiltzen den materialak antena balitz bezala funtziona dezake.

<http://ttiki.com/33724> (Gaztelaniaz)

Nolako da zientziaz eta osasunaz duzun ezagutza?

Informazioa iristen zaigu etengabe eta askotan uste dugu asko dakigula hainbat gaitaz, baina benetan badakigu, edo besterik gabe zerbait daukagu horretaz entzunda? Ondoko loturan zure oinarritzko jakinduria neurtu dezakezu.

<http://ttiki.com/33725> (Frantsesez)